Alcalde - Alkatea

D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna.

Tenientes de Alcalde - Alkate Ordeak

Dña. María José Tellería Etxeberria andrea.

D. Arcadio Benitez Dávila jauna.

Dña. Esther Kareaga Olano andrea.

D. Eneko Andueza Lorenzo jauna.

D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.

Dña. María Arrate Gallastegui Oyarzabal andrea.

D. José Luis Vallés Molero jauna.

Concejales - Zinegotziak

Dña. Ana María Rodríguez Fouz andrea.

D. Igor Aldalur Zendoia jauna.

D. Josu Cristobal Churruca jauna.

D. Gorka Novoa Aguirregomezkorta jauna.

Dña. Leire Abanzabalegui Aranguren andrea.

Dña. Nerea Castro Sánchez andrea.

Dña. Igone Lamarain Cobo andrea.

Dña. Eva Juez Garmendia andrea.

D. Iñaki Zuloaga Alberdi jauna.

Dña. María Luz Balenziaga Gisasola andrea.

D. Javier Zorrakin Berrizbeitia jauna.

Dña. Maria Carmen Larrañaga Maiztegui andrea.

Dña. Sofía Vázquez Gonçalves andrea.

Secretaria General - Idazkari Orokorra

Dña. Arantzazu Echániz Petralanda andrea.

Eibarko hirian, bi mila eta hamabosteko otsailaren hogeita hiruan, arratsaldeko zazpiak eta erdiak izanik, Udal Batzarra bildu zen ohiko bileran, Udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun/andreek osatua.

En la Ciudad de Eibar, a veintitrés de febrero de dos mil catorce y siendo las diecinueve horas treinta minutos, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as.

Alkate jaunak bilerari hasiera eman dio eta eguneko aztergaiaren lehenengo atala irakurri da.

El Sr. Alcalde declara abierta la sesión y se procede a la lectura del primer punto del Orden del Día.

1. ATALA

PUNTO 1º

2014ko abenduaren 22an eta 2015eko urtarrilaren 26an, Udalbatzak egindako bilkurei dagozkion akta-zirriborroak onartzea.

Aprobación de los borradores de actas correspondientes a las sesiones de Pleno Municipal celebradas el 22 de diciembre de 2014 y el 26 de enero de 2015.

2014ko abenduaren 22an eta 2015eko urtarrilaren 26an Udalbatzak egindako bilkurei zegozkien akten zirriborroak botazioan jarrita, honako emaitza honekin, ontzat eman dituzte eta akta moduan utzi.

Sometidos a votación los borradores de actas correspondientes a las sesiones de Pleno Municipal celebradas el 22 de diciembre de 2014 y el 26 de enero de 2015, son aprobados con el siguiente resultado, siendo elevados a Actas:

Baiezko botoak: Telleria Etxeberria, Benítez Dávila, Kareaga Olano, Andueza Lorenzo, Gallástegui Oyarzabal, Vallés Molero, Rodríguez Fouz, Escribano Ruiz

Votos afirmativos: Telleria Etxeberria, Benítez Dávila, Kareaga Olano, Andueza Lorenzo, Gallástegui Oyarzabal, Vallés Molero, Rodríguez Fouz, Escri-

de la Torre (PSE-EE), Juez Garmendia, Zuloaga Alberdi, Balenziaga Gisasola, Zorrakin Berrizbeitia (EAJ-PNV), Larrañaga Maiztegui, Vázquez Gonçalves (PP).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Aldalur Zendoia, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Castro Sánchez, Novoa Aguirregomezkorta, Lamarain Cobo (BILDU).

bano, Ruiz de la Torre (PSE-EE), Juez Garmendia, Zuloaga Alberdi, Balenziaga Gisasola, Zorrakin Berrizbeitia (EAJ-PNV), Larrañaga Maiztegui, Vázquez Gonçalves (PP).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Aldalur Zendoia, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Castro Sánchez, Novoa Aguirregomezkorta, Lamarain Cobo (BILDU).

2. ATALA

Agiriak eta posta-bidezkoak.

Idazkari andreak esan du ez dela ezer jaso, beraz, ez dagoela ezer adierazteko-rik.

PUNTO 2º

Despachos y comunicaciones.

Manifiesta la Sra. Secretaria no procede dar cuenta de ninguno por no haberse recibido.

3. ATALA.

Erakunde, Lurralde eta Lege gaietarako Lan Batzordetik.

1.- Udala INNPULSO Sareko Elkartean sartzea.

Honako diktamen hau irakurri da:

PUNTO 3º

De la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales.

1.- Integración del Ayuntamiento en la Asociación Red INNPULSO.

Se da lectura al siguiente dictamen:

“Ekonomia Garapena, Enplegua eta Berrikuntza batzordeburuak udalerri hau Innpulso Sareko Elkartean sartzeko egin duen proposamenaren berri eman da; eta, aldi berean, elkarte horren estatutuak bidali ditu onespena emateko.

Idazkari nagusiak horren inguruan egin duen txostenaren berri ere eman da.

Elkar iritziak eman ondoren, etorritako guztien aldeko botoekin –Lamarain, Cristobal eta Juez jaun/andreen abstentzioak izan ezik- udalbatzari, erabaki hau hartzeko proposamena egin zaio:

ONESPENA EMAN DEZALA udal hau INNPULSO sareko elkartean sartzeko, elkarte hori arautzen duten estatutuak onartuta."

Aldalur jaunak hitza hartu du eta esaten du elkarte hori zer den jakiteko eta estatutuak ikusteko informazio bila ibili direla, eta ikusi dutenez, 2013ko apirilean onartu zen sare horren funtzionamendu-protokoloa, eta bertan sartuta dauden hiriek lau bentaja hauek dauzkatela: baimena elkartearen ezaugarria edo bereiz-

“Se da cuenta de la propuesta de la Presidenta de la Comisión de Desarrollo Económico, Empleo e Innovación de integración de este municipio en la Asociación Red Innpulso, remitiendo los estatutos de la misma para su aprobación.

Se da cuenta asimismo del informe emitido al respecto por la Secretaria General.

Tras un cambio de impresiones, con los votos favorables de todos los asistentes excepto las abstenciones de las Sras. Lamarain y Juez y del Sr. Cristobal, se propone al Pleno Municipal:

APRUEBE la integración de este Ayuntamiento en la Asoicación Red INNPULSO aprobando los estatutos reguladores de la misma.”

Interviene el señor Aldalur quien afirma que se han estado informando sobre qué es esta asociación y sus estatutos, y han visto que en abril de 2013 se aprobó el protocolo de funcionamiento de esta red, y que las ciudades que están en ella tienen cuatro ventajas: autorización para la distinción en la comunicación y promo-

garria hiriaren sustapenean eta komunikazioetan erabiltzeko —beraien iritziz, dio, erabiltzen ari den logotipoa hor sartzen da—; elkarte barruan dauden udalerrien artean elkarlaneko proiektuak sustatzea eta bultzatzea —eta arlo horretan, dio Aldalur jaunak, beraiek ez dute ikusi aurrerapauso sendorik eman denik—; zientziaren eta berrikuntzaren hiriak nazioartean sustatzea I+G+b-rekin lotutako nazioarteko ekialdietan; eta, azkenik, hiri horiei lehentasuna ematea estatuaren titulartasuneko edo partizipazioko instalazio zientifikoak eta teknologikoak kokatzeko; hiri horiek lehenestea ikerketako erakunde publikoen mintegiak eta kongresuak antolatzeko lekuak erabakitzeko orduan.

Aldalur jaunak gaineratu du beraiek ez dutela proiektu horren kontra agertu nahi baina zalantzak izan ditzaketela izen 'ponposo' horren atzean egon daitekeenaz.

Telleria andreak dio hala dela, izen 'ponposo'a duela baina ez dagoela batere dirurik edo aurrekonturik, beraz, sare hori erakunde juridiko bilakatu nahi dela Ministerioaren diru-transferentziak izan ditzan, eta dirua dagoenean, proiektuak planteatu.

Telleria andreak gogora ekarri du baita

ción de la ciudad, que entienden entra en ello el logotipo que se viene utilizando; el fomento e impulso de proyectos colaborativos entre los municipios que se integren en ella, y en este campo no ven que se hayan dado avances firmes; la promoción internacional de las ciudades de la ciencia e innovación en eventos internacionales relacionados con la I+D+i; y la consideración preferente de estas ciudades para la ubicación de instalaciones científicas y tecnológicas de titularidad o participación estatal, y priorización de estas ciudades como lugares preferentes para congresos y seminarios de organismos públicos de investigación.

Añade que no quieren mostrar una postura contraria a este proyecto pero sí que tienen dudas sobre lo que puede haber tras este nombre pomposo.

Afirma la señora Tellería que en efecto, tiene un nombre pomposo pero no se dispone de nada de presupuesto, por lo que se pretende que la red se convierta en un ente jurídico para que pueda tener transferencias del Ministerio; y una vez se disponga de fondos, plantear proyectos.

Recuerda también que sin apenas dinero

Madrilen, ia dirurik gabe, ETEetako berrikuntza-egileekin topaketa bat izan zela Gabon aurretik; eta hara joandako udal bakoitzak bere aurrekontuetan sartu zuela hura. Horrela, dio, gaiaz arduratuko zen teknikari bat izatea lortu zen, Luis Cueto, eta Teknikerrek erosketa publiko berritzailearen inguruko jardunaldi batzuk antolatu zituen eta haren haritik, Foru Aldundiarekin eta beste udal batzuekin, proiektuak martxan jartzen hasi ziren, sare sortu berri horretatik ateratako proiektuak.
Sare horri dagokionez, Telleria andreak dio martxoan bilduko direla kideak eta sarearen amuarekin ekimenak izatea itxoiten dela.

Aldalur jaunak galdetu du Ministerioak eman behar duen dirua 100.000 euro den, horrela bada, oso zenbateko txikia iruditzen zaiolako berari, sare horretan hiri asko daudelako sartuta.

Telleria andreak dio erakunde hori sortzeko proposamena egiten bada, hain zuzen ere, horrexegatik dela; sare moduan, aurrekonturik ez izatera, ez delako inoiz inora joaterik izan.
Segitu du esaten hala dela, ehun mila euro oso gutxi dela, baina proiektuak aurkezten badira, bere ustez, diru-iturri gehiago lortuko dira.

tuvo lugar en Madrid un encuentro de innovadores de PYMES, antes de navidades, que los ayuntamientos que asistieron lo asumieron en sus presupuestos, que con ello se logró la disposición de un técnico responsable, Luis Cueto, y que se organizaron por Tekniker unas jornadas sobre compra pública innovadora, y que al hilo de ello se comenzó con la Diputación y otros ayuntamientos a poner en marcha proyectos, proyectos salidos de esa red creada.
En lo que se refiere a esta red, concluye, en el mes de marzo se reunirán sus componentes y se espera que con el señuelo de la red se creen iniciativas.

El señor Aldalur pregunta si lo que va a dar el Ministerio es 100.000 euros, porque si es así, le parece una cifra muy pobre, pues hay muchas ciudades metidas en esta red.

Indica la señora Telleria que precisamente se propone la creación del ente porque no se ha podido ir a ninguna parte como red, por no contar con presupuesto.
Prosigue diciendo que desde luego que cien mil euros es muy poco, pero que si se presentan proyectos, cree que se obtendrán también más fuentes de ingre-

Gaineratzen du sare barruan beste hirugarren talde bat ere sortuko dela proiektuak Europa mailan aurkezteko, eta horrekin gauzak mugitzen hastea espero duela.

Irizpena botaziopean jarrita, onartu egin da. Hona hemen emaitza:

Baiezko botoak: Alkatea, Telleria Etxeberria, Benítez Dávila, Kareaga Olano, Andueza Lorenzo, Gallástegui Oyarzabal, Vallés Molero, Rodríguez Fouz, Escribano Ruiz de la Torre (PSE-EE), Juez Garmendia, Zuloaga Alberdi, Balenziaga Gisasola, Zorrakin Berrizbeitia, (EAJ-PNV), Larrañaga Maiztegui, Vázquez Gonçalves (PP).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Aldalur Zendoia, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Castro Sánchez, nchez, Novoa Aguirregomezkorta, Lamarain Cobo (BILDU).

Obra, Hirigintza eta Ingurugiro Batzordetik.

<u>1.- Murrategi 13.3 Plan Bereziari behin be-</u>

sos.

Añade que también se creará dentro de la red un tercer grupo para presentar proyectos a nivel europeo, y espera que con ello se empiecen a mover las cosas.

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Votos afirmativos: Alcalde, Telleria Etxeberria, Benítez Dávila, Kareaga Olano, Andueza Lorenzo, Gallástegui Oyarzabal, Vallés Molero, Rodríguez Fouz, Escribano, Ruiz de la Torre (PSE-EE), Juez Garmendia, Zuloaga Alberdi, Balenziaga Gisasola, Zorrakin Berrizbeitia (EAJ-PNV), Larrañaga Maiztegui, Vázquez Gonçalves (PP).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Aldalur Zendoia, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Castro Sánchez, Novoa Aguirregomezkorta, Lamarain Cobo (BILDU).

De la Comisión de Trabajo de Obras, Urbanismo y Medio Ambiente.

<u>1.- Aprobación definitiva del Plan Espe-</u>

tiko onespena ematea.

Honako diktamen hau irakurri da:

"Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Murrategi 13.3. eremuaren Plan Bereziari hasierako onespena ematea erabaki zuen, Trust Eibarrés-ek aurkeztutakoa.

Hasierako onespenari dagokion akordioa El Correo eta Berria egunkarietan kaleratu zen 2014ko abenduaren 16an; Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2014ko abenduaren 17an argitaratu zen, 240. alean. Jendaurrean edukitzeko 20 eguneko informazio-aldia igarota, ez zen inongo alegaziorik aurkeztu.

Espediente hau tramitatzerakoan indarrean dauden araudi guztietan aipatzen diren tramiteak bete egin direla kontuan hartuta; Hirigintza, Obra eta Ingurumen lan batzordeak, Josu Cristobal jaunaren abstentzioarekin eta Eneko Andueza, Ana Rodriguez, Arcadio Benitez, Eva Juez eta Carmen Larrañaga jaun/andreen baietzarekin, udalbatzari erabaki hau hartzeko proposamena egin zaio:

AURRENA: Trust Eibarrés-ek aukeztutako

cial 13.3 Murrategi.

Se da lectura al siguiente dictamen:

“La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 5 de febrero de 2014, acordó aprobar inicialmente el Plan Especial del ámbito 13.3 Murrategi, presentado por el Trust Eibarrés.

El acuerdo de aprobación inicial fue publicado en los periódicos El Correo y Berria el 16 de diciembre de 2014 y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 240 de fecha 17 de diciembre de 2014. Transcurrido el plazo de información pública de 20 días no se presento ninguna alegación.

Considerando que en la tramitación de este Expediente se han observado los trámites que se relacionan en la normativa vigente, la Comisión de Trabajo de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente, con la abstención de D. Josu Cristobal y los votos a favor de D. Eneko Andueza, Dª Ana Rodriguez, D. Arcadio Benitez, Dª Eva Juez y Dª Carmen Larrañaga , propone al Pleno Municipal acuerde:

PRIMERO: APROBAR con carácter de-

Murrategi 13.3 eremuaren Plan Bereziari behin betiko onespena ematea.

BIGARRENA: Esparru horretan zegoen partzelatze- eta eraikuntza-lizentzien etena kentzea.

HIRUGARRENA: Testu Bateratuaren kopia bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Departamentuari bidaltzea erregistroan sar dezan.

LAUGARRENA: Gipuzkoa Lurralde Historikoaren Buletin Ofizialean behin betiko onarpenaren akordio hau argitara ematea; Plana, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistroan gordeta geratu dela adierazita. Horretarako, Planaren kopia bat ekarri behar da euskarri informatikoan. Administrazio-tramitazioak derrigorrez eskatzen dituen iragarki-kaleratzeak urbanizazio-kargak dira, Unitateko jabeen kargu geratzen direnak.

BOSGARRENA: Behin betiko onarpenaren erabakia Udaletxeko ediktuen oholean jartzea eta, gutxienez, hedapen handieneko egunkarietako batean argitara ema-

finitivo el Plan Especial del ámbito 13.3 Murrtegi, presentado por el Trust Eibarrés.

SEGUNDO: Levantar la suspensión del otorgamiento de licencias de parcelación y edificación en el ámbito.

TERCERO: Remitir una copia del Texto Refundido al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa para su registro.

CUARTO: Publicar en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa el contenido íntegro del presente acuerdo de aprobación definitiva, con indicación de haberse producido el depósito del plan en el registro de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Para ello, deberá aportarse una copia del Plan en soporte informático. La publicación de los anuncios preceptivos de la tramitación administrativa son cargas de urbanización que corren a cargo de los propietarios de la Unidad.

QUINTO: Publicar el acuerdo de aprobación definitiva en el tablón de edictos del Ayuntamiento y en al menos uno de los periódicos de mayor difusión.”

tea."

Irizpena botaziopean jarrita, onartu egin da. Hona hemen emaitza:

Baiezko botoak: Alkatea, Telleria Etxeberria, Benítez Dávila, Kareaga Olano, Andueza Lorenzo, Gallástegui Oyarzabal, Vallés Molero, Rodríguez Fouz, Escribano Ruiz de la Torre (PSE-EE), Juez Garmendia, Zuloaga Alberdi, Balenziaga Gisasola, Zorrakin Berrizbeitia, (EAJ-PNV), Larrañaga Maiztegui, Vázquez Gonçalves (PP).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Aldalur Zendoia, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Castro Sánchez, nchez, Novoa Aguirregomezkorta, Lamarain Cobo (BILDU).

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Votos afirmativos: Alcalde, Telleria Etxeberria, Benítez Dávila, Kareaga Olano, Andueza Lorenzo, Gallástegui Oyarzabal, Vallés Molero, Rodríguez Fouz, Escribano, Ruiz de la Torre (PSE-EE), Juez Garmendia, Zuloaga Alberdi, Balenziaga Gisasola, Zorrakin Berrizbeitia (EAJ-PNV), Larrañaga Maiztegui, Vázquez Gonçalves (PP).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Aldalur Zendoia, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Castro Sánchez, Novoa Aguirregomezkorta, Lamarain Cobo (BILDU).

2.- Behin betiko onespena ematea Txonta Eremua aldatzen duen Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 4. Aldaketari.

Honako diktamen hau irakurri da:

"Txonta eremuari zegokion Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 4. Al-

2.- Aprobación definitiva de la 4ª modificación del Plan General de ordenación Urbana de Eibar que modifica el Area de Txonta.

Se da lectura al siguiente dictamen:

"Por acuerdo de Pleno de 29 de septiembre de 2014 se aprobó provisional-

daketari behin-behineko onespena eman zitzaion 2014ko irailaren 29ko udal osoko bilkuraren erabakiz.

Gipuzkoako Urak 2014ko abenduaren 22an adierazi duenez, sareak, bai hornikuntzarenak, bai saneamenduarenak, behar adinakoak dira proposatu den garaperako.

2/2006 Legeak ezarritakoaren arabera, espedientea Euskadiko Lurralde Antolaketa batzordera bidali zen, eta urtarrilaren 28an egindako bilkuran, behin betiko onespenaren aldeko irizpena eman zuen.

Batzorde horretarako egin ziren txostenetan hainbat baldintza eta ohar ezarri ziren, hirigintza-fitxan jaso beharko liratekeenak:

- Oharren atalean hauxe gehituko litzateke: 500 urteko errepikatze-denborako ur-goraldiek har ditzaketen lekuen gainean kokatutako eraikinetan kontuan hartuko dira 400/2013 Errege Dekretuz onartutako Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren 53. artikuluak jasotako erabilera-mugapenak.

- Hirigintza-fitxan zuzendu egingo da aza-

mente la 4ª Modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar relativa al Área de Txonta.

Con fecha 22 de diciembre de 2014, Gipuzkoako Urak ha informado que las redes tanto de abastecimiento como de saneamiento son suficientes para el desarrollo propuesto.

En aplicación de lo establecido por la ley 2/2006 se remitió el expediente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco que ha emitido su dictamen favorable a la aprobación definitiva en sesión celebrada el día 28 de enero.

En los informes emitidos para dicha Comisión se establecían una serie de condiciones y observaciones, que deberán recogerse en la ficha urbanística:

- En el apartado observaciones se añadirá lo siguiente: En las edificaciones ubicadas sobre zonas inundables por la avenida de 500 años se tendrán en cuenta las limitaciones de usos recogidas en el artículo 53 del Plan Hidrológico del Cantábrico Oriental aprobado por Real Decreto 400/2013

- En la ficha urbanística se corregirá la

lera, eta sistema orokorrak kenduta 65.078 m2koa izango da; horren ondorioz, aterako den eraikigarritasun gordina 0,85 $m^2s/m^2l$-ekoa izango da.

- Hirigintza-fitxan, bizitegi eraikuntzaren igoerari dagokion zenbatekoa jasoko da, 50.732 $m^2s$.

Euskal Herriko lurzoruaren eta hirigintzaren 2/2006 Legeko 91. artikuluak hauxe ezartzen du: plan orokorrei behin betiko onespena emateko ahalmena udalena dela 7.000 biztanletik gorako udalerrietan. Eskumena duen organoari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2.c artikuluak udal osoko bilkura dela ezartzen du. Bestalde, 47.2.II artikuluak gehiengo osoa eskatzen dio udalbatzari planeamendu orokorrerako hirigintza-legerian aurreikusitako tresnak tramitatzeko hartu behar diren akordioak edo erabakiak hartzerakoan.

Espedienteari lege-aholkulariak egin duen txostena erantsita, Hirigintza eta Obra lan batzordeak, Eneko Andueza, Ana Rodriguez, Arcadio Benítez, Carmen Larrañaga, Josu Cristobal eta Eva Juez zi-

superficie descontados los sistemas generales que es de 65.078 $m^2$ y, en consecuencia, la edificabilidad bruta resultante para el ámbito que es de 0,85 $m^2t/m^2s$.

- Se incluirá en la ficha urbanística la cifra del incremento de edificación residencial, que es de 50.732 $m^2t$.

El artículo 91 de la ley 2/2006 de suelo y urbanismo del País Vasco establece que la competencia para la aprobación definitiva de los planes generales corresponde a los ayuntamientos en los municipios con población superior a 7.000 habitantes. En cuanto al órgano competente el artículo 22.2.c) de la ley 7/1985 reguladora de las Bases del régimen local establece que corresponde al Pleno Municipal. . Por otro lado el artículo 47.2.II exige mayoría absoluta para los acuerdos que corresponda adoptar a la corporación en la tramitación de los instrumentos de planeamiento general previstos en la legislación urbanística.

Incorporado al expediente el informe del Asesor Jurídico, la Comisión de Trabajo de Urbanismo y Obras, con los votos a favor de Eneko Andueza, Ana Rodriguez, Arcadio Benitez, Carmen La-

negotzi jaun/andreen aldeko botoekin, udalbatzari, erabaki hau hartzeko proposamena egin dio:

AURRENA: Behin betiko onarpena ematea Eibarko Hiriaren Antolamendurako Plan Orokorraren 4. aldaketari, Txonta Eremuari dagokiona, hirigintza-fitxan goian esandako zuzenketa horiek eginda.

BIGARRENA: Erabaki honen xede den Aldaketak zuzenean eragindako baimenen eta lizentzien inguruan hasierako onarpenaren erabaki hartan zetorren etena KENTZEA.

HIRUGARRENA: Argitara eman baino lehen, onartutako aldaketa Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistroan gordetzeko BIDALTZEA.

LAUGARRENA: Gipuzkoa Lurralde Historikoaren Buletin Ofizialean behin betiko onarpenaren akordio hau, hirigintza-arauak eta hirigintza-fitxa ARGITARA EMATEA; Aldaketa dokumentua erregistroan gordeta geratu dela adierazita. Behin betiko onarpenari dagokion erabakia, Gipuzkoako lurralde historikoan zabalkunde handiena duen edo duten egunkarietan emango da argitara."

rrañaga, Josu Cristobal, y Eva Juez , propone al Pleno Municipal acuerde:

PRIMERO: APROBAR definitivamente la 4ª Modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar relativa al Área de Txonta, con las correcciones arriba indicadas en la ficha urbanística.

SEGUNDO: LEVANTAR la suspensión indicada en el acuerdo de aprobación inicial respecto de autorizaciones y licencias directamente afectados por la Modificación objeto de este acuerdo.

TERCERO: REMITIR la modificación aprobada para su depósito en el registro de la Diputación Foral de Gipuzkoa, con carácter previo a su publicación.

CUARTO: PUBLICAR en el boletín oficial del territorio histórico el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva, las normas urbanísticas y la ficha urbanística con indicación de haberse producido el depósito del documento de Modificación en el registro. El acuerdo de aprobación definitiva se publicará, además, en el diario o diarios de mayor difusión en el territorio histórico de Gipuzkoa."

Aldalur jaunak dio azkenean onartu dela aldaketa hau, izan ere, prozesua garizuma baino luzeagoa izan baita, baina aldi berean, errazena ere egin dela: planeamendua aldatzea; eta orain, hiru arlotan egin behar da lana, alde batetik Txontan dauden enpresak handik alde egitea, han geratzen diren etxebizitzak txukuntzea eta dauden akatsak konpontzea.

Interviene el señor Aldalur quien afirma que por fin se aprueba esta modificación, cuyo proceso ha sido más largo que la cuaresma, pero que se puede decir que se ha hecho lo que es más fácil: la modificación del planeamiento, y que ahora hay que trabajar en tres campos: las empresas que se tienen que desplazar de Txonta, adecentar las viviendas que quedan, y mejorar las deficiencias.

Denbora pasa ahala, dio, egunetik egunera garbiago du bere sasoian Txontako Mahaiak izan zuen bertutea, hark hura biziberritzeko balio izan baitzuen.

Amaitzeko esan du orain sasoi txarra datorrela, denak daudelako maiatzean izango diren hauteskunde horiekin pentsatzen, eta akaso, hurrengo udalbatzaren lehenengo lana Txontako Mahaia berriro biltzea eta erabakitzeke dauden gai guztiak behin betikoz konpontzea izango da.

A medida que pasa el tiempo, afirma, cada vez tiene más claro la virtud que tuvo en su día la Mesa de Txonta, pues sirvió para dinamizar este tema.

Concluye diciendo que ahora viene una época mala en la que todos están pensando en las elecciones de mayo, y que quizá la primera labor de la próxima corporación sea reunir de nuevo a la Mesa de Txonta y solucionar definitivamente todas las cuestiones pendientes.

Diktamena edo irizpena botaziopean jarrita, aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen se aprueba por unanimidad.

<u>3.- Bista Eder eta Eulogio Garate kaleen arteko igogailu publikoa egiteko partzela bat zuzenean okupatzeko hitzarmena onartzea.</u>

<u>3.- Aprobación del convenio relativo a la ocupación directa de una parcela para la ejecución del ascensor público entre las calles Bista-Eder y Eulojio Garate.</u>

Honako diktamen hau irakurri da:

“Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak, indarrean dagoena, ERREKATXU 124.01 JI edo jarduketa bakandua mugarriztatzen du, Bista Eder, Errekatxu eta Eulogio Garate kaleen zati bat hartzen duena. Eremu honen barruan irisgarritasuna konpontzea aurreikusten zen, horretarako, Bidebarrieta kalea, Bista Eder kalea, Eulogio Garate kalea eta Sansaburu kalearen arteko eskailera mekanikoak jarrita.

Eibarko udalari -irisgarritasuna sustatzeko duen plana garatzearren- lehentasunezkoa irizten zaio Bista Eder kalearen eta Eulogio Garate kalearen arteko irisgarritasunarena konpontzea; horretarako, urbanizazio-obra proiektu bat egin du kale bi horien arteko igogailu publiko bat eraikitzeko. Irispide hori igogailu bidez egitea komenigarriagotzat jo da, igogailua delako mugikortasun murriztuko pertsona ezinduek dituzten irisgarritasun premiak konpontzen dituen bitarteko bakarra; igogailu batek leku gutxiago eskatzen duelako eta mantentze-gastu gutxiago duelako. Igogailua Bista Eder kalean jarriko da, Portalea eraikinaren ondoan eta hura Eulogio Garate kalearekin elkartzeko

Se da lectura al siguiente dictamen:

“El Plan General de Ordenación Urbana de Eibar vigente delimita la actuación integrada A.I. 124.01. ERREKATXU, que abarca parte de las calles Bista Eder, Errekatxu y Eulogio Garate. Dentro de este ámbito estaba previsto resolver la accesibilidad mediante escaleras mecánicas entre Bidebarrieta Kalea, Bista Eder Kalea,Eulogio Garate Kalea y Sansaburu.

El Ayuntamiento de Eibar en desarrollo de su plan de fomento de la accesibilidad, considera prioritario resolver la accesibilidad entre Bista Eder kalea y Eulogio Garate kalea, y por ello ha redactado un proyecto de obra de urbanización para la construcción de un ascensor público entre dichas dos calles. Se ha considerado más conveniente resolver el acceso mediante ascensor porque es el único medio que efectivamente resuelve las necesidades de accesibilidad de las personas discapacitadas con movilidad reducida, por la menor ocupación que supone el mismo, y por sus menores gastos de mantenimiento. Se ubica el ascensor en la calle Bista Eder junto al

27,39 metroko luzera izango duen pasabide bat jarriko da, Portalea eraikineko fatxadaren parean, alde batetik bestera. Bai igogailua, bai pasabidea, biak kokatzen dira herriko bide-sistemarenak eta gune publikoarenak diren gune publikoetan, 2,76 m2-ko gune batean izan ezik, zati horretan, pasabidea mugakide den partzelaren gainetik joango baita.

Igogailua jartzea, ERREKATXU 124.01 JI edo jarduketa bakandurako hiri-planeamenduak aurreikusten duen komunikazioetako toki sistemaren zati baten egintza aurreratutzat hartzen da; justifikatua, gaur egun eremu horren kudeaketa garatzeko epeen inguruan dagoen ziurgabetasunagatik.

Alboko lurzati baten gainetik pasatzen denez pasarela hori, jabetzarekin elkar ados jarrita zati hori ezinbestean okupatuko da, 2/2006 legearen -hirigintzarena eta lurzoruarena- 188. artikuluak dioena aplikatuta.

Eremu horretarako HAPOaren fitxak ezartzen duen aprobetxamendu-mota 2,93 metro koadroko azalera eraikikoa da etxebizitza-erabilera librerako lurzoruaren 2,76 metro koadro bakoitzeko, beraz, eragiten den partzela pusketa horri legokio-

edificio Portalea para conectar con Eulogio Garate se proyecta una pasarela de 27,39 m. de longitud que discurre junto a la fachada de Portalea. Tanto el ascensor como la pasarela se sitúan sobre espacios públicos pertenecientes al sistema local de viario y espacio público, salvo en una zona de 2,76 $m^2$ en que la pasarela vuela sobre la parcela colindante.

La ejecución del ascensor se considera una ejecución anticipada de una parte del sistema local de comunicaciones previsto por el planeamiento para la actuación integrada A.I. 124.01. ERREKATXU y justificada por la incertidumbre actual sobre los plazos de desarrollo de la gestión de dicho ámbito.

La ocupación en vuelo de la porción de la parcela colindante, de común acuerdo con la propiedad de la misma, se hará en aplicación del artículo 188 de la ley 2/2006 de suelo y urbanismo

La ficha del PGOU para el ámbito establece un aprovechamiento tipo de 2,93 $m^2$ construidos del uso característico, vivienda libre, por 2,76 $m^2$ de suelo, por lo que la edificabilidad que le correspondería a la porción de parcela que se

keen eraikigarritasuna 8,08 m2 sabaikoa izango litzateke, ERREKATXU 124.01. JI eremuari berezkoa zaion erabileran, etxebizitza librekoan alegia. Horixe da igogailua jartzeko aurretiaz okupatuko diren lursailei aitortzen zaien hirigintza eraikigarritasuna.

4381161 katastro-partzelaren gaur eguneko antolaketa aldatuz gero, udalak bere burua behartzen du etorkizuneko antolaketarako gutxieneko parametro batzuk ezartzera, edo, hala balegoke kasua, hori sartzen den eremukoa. Konpromiso horiek eta beste batzuk jasotzeko, hirigintza-hitzarmen bat formalizatzea erabaki da. Konpromiso horietako batzuk hirigintza-planeamenduaren ahalmenari eragiten diotenez, hitzarmen hori planeamendukotzat hartzen da.

Oraingo kasu honetan, 2015eko urtarrilaren 16ko Alkatetzaren Dekretuz, hitzarmena jendaurrean jarri da eta horren testua, oso-osorik, 2015eko urtarrilaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara. Informazio publikoaren aldian edo epean, ez da alegaziorik aurkeztu.

Espedienteari lege-aholkulariak egin duen txostena erantsita, Hirigintza eta Obra lan

afecta sería de 8,08 m² de techo referidos al uso característico del ámbito A.I. 124.01. ERREKATXU, que es el de vivienda libre. Esta es la edificabilidad urbanística a reconocer a los terrenos ocupados anticipadamente para la ejecución del ascensor.

Caso de alterarse la actual ordenación de la parcela catastral 4381161, el Ayuntamiento se obliga a garantizar el establecimiento de unos parámetros mínimos para su futura ordenación o, en su caso, del ámbito en que la misma resulte incluida, Para recoger dichos compromisos y otros se ha decidido formalizarlos a través de un convenio urbanístico. Dado que parte de esos compromisos afectan a la potestad de planeamiento urbanístico se considera el convenio como de planeamiento.

En este caso por Decreto de Alcaldía de 16 de enero de 2015 se ha sometido a información pública el convenio, y se ha publicado su texto integro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 26 de enero de 2015. En el plazo de información pública, no se han presentado alegaciones.

Incorporado al expediente el informe del Asesor Jurídico, la Comisión de Trabajo

batzordeak, Eneko Andueza, Ana Rodriguez, Arcadio Benítez, Carmen Larrañaga, Josu Cristobal eta Eva Juez zinegotzi jaun/andreen aldeko botoekin, udalbatzari, erabaki hau hartzeko proposamena egin dio:

de Urbanismo y Obras, con los votos a favor de Eneko Andueza, Ana Rodriguez, Arcadio Benitez, Carmen Larrañaga, Josu Cristobal, y Eva Juez , propone al Pleno Municipal acuerde:

ONARTZEA Hitzarmena, Eibarko Bista Eder eta Eulogio Garate kaleen arteko igogailu publikoa jartzeko hartuko den 4381 161 katastroko lur-zatiaren pusketa baten gaina zuzenean okupatzekoa. Hitzarmena izenpetu ondoren, bertan azaltzen dena egin beharko da."

APROBAR el convenio relativo a la ocupación directa del vuelo de una porción de la parcela catastral 4381 161 para la ejecución del ascensor publico entre las calles Bista Eder y Eulogio Garate, debiéndose una vez suscrito el mismo realizar las operaciones en él contenidas."

Aurreko diktamena botazioan jarrita, etorri diren guztiek aho batez ontzat eman dute.

Sometido a votación el precedente dictamen, se aprueba por unanimidad de los/as Sres/as. Asistentes.

Pertsonal Lan Batzordetik.

De la Comisión de Trabajo de Personal.

<u>Ekonomia Saileko giza-baliabideen antolaketa plana.</u>

<u>Plan de ordenación de recursos humanos del Área Económica.</u>

Honako diktamen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

"Gaur egun Ekonomia Sailean indarrean dagoen antolamendua 1999-2001 urteen artean ezarri zen eta orain arte iraun du;

"La organización del Área Económica actualmente vigente, se implantó entre los años 1999-2001 y ha perdurado hasta

hala ere, bilakaerak izan ditu eta edukiak handitzen joan da, Sailaren antolaketa-sarean, azkenean, tirabirak sortu dituztenak.

hoy día, aunque evolucionando y ampliando contenidos, que al final han ido tensionando su entramado organizativo.

Azken urte hauetan horrenbestekoa izan da Ekonomia Sailaren jarduera-eremuan atera den arau-kopurua, zeren betebehar berriei eta araudi berri horrek ezarritako zereginetara egokitzeko zuen ahalmenak gainezka egin duen, izan ere, duela 15 urte zuen pertsonal talde berberarekin ari baita funtzionatzen.

Estos últimos años ha irrumpido tal cantidad de normativa nueva en el ámbito de actuación del Área Económica, que ha superado su capacidad de adaptación a las nuevas obligaciones y tareas impuestas por esa normativa, ya que se sigue funcionando con el mismo equipo de personal con el que se contaba hace 15 años.

Betebehar horietako batzuk dagoeneko indarrean daude eta beste batzuk indarrean izango dira 2015ean eta 2016an.

Algunas obligaciones ya en vigor y otras que serán vigentes en los años 2015 y 2016.

Pertsonal eta Antolamendu teknikariak, funtsen Kontu-hartzailearekin eta Diruzainarekin batera, Ekonomia Saileko giza baliabideak antolatzeko Plana prestatu du.

Por parte de la Técnica de Organización y Personal, junto con el Interventor de Fondos y la Tesorera, se ha preparado un Plan de ordenación de recursos humanos de esta Área Económica.

Sindikatuen ordezkaritzari eman zaio antolaketa Plan horren berri.

Se ha dado cuenta de la propuesta de dicho Plan de ordenación a la representación sindical.

Langileria lan batzordeko kide diren zinegotziek, Antolamendu eta Pertsonal zuzendari andreak, Ekonomia Saileko giza

Los/as Concejales/as miembros de la Comisión de Trabajo de Personal, a la vista de la propuesta presentada por la

baliabideak antolatzeko Planari buruz aurkeztu duen proposamena aztertuta eta gai horren inguruan egin den bozketaren emaitza hau ere ikusita:

- Aldeko botoak: Jose Luis Vallés, Arcadio Benitez, MªJose Tellería, Ana Rodriguez eta Carmen Larrañaga jaun/andreenak.
- Abstentzioak: Javier Zorrakin, Nerea Castro eta Leire Abanzabalegi jaun/andreenak.

Udal osoko bilkurari, erabaki hau hartzeko proposamena egin diote:

Ekonomia Saileko giza baliabideak antolatzeko Plan hori onartzea eta Plan horren barruan dauden ondoko erabaki hauek hartzea, Udalbatza honen eskumenekoak baitira:

- Kontratazioen eta Diru-laguntzen Unitatea sortzea. Unitate hori Ekonomia Sailean barneratuko da, ezarri zaizkion betekizunak garatuko ditu Plan honetan deskribatutako funtzio-organigrama horrekin.
- Kontratu Txikietarako eta Diru-laguntzen Prozedura Kontrolatzeko erdi mailako teknikari/administrari plaza edo lanpostua sortzea; Administrazio Oroko-

Directora de Organización y Personal referente al Plan de ordenación de recursos humanos del Área Económica, y visto el resultado de la votación efectuada al respecto:

- Votos a favor: Sres/as. Jose Luis Vallés, Arcadio Benitez, MªJose Tellería, Ana Rodriguez y Carmen Larrañaga.
- Abstenciones: Sres/as. Javier Zorrakin, Nerea Castro y Leire Abanzabalegi.

acordaron proponer al Pleno Municipal, la adopción del siguiente acuerdo:

Aprobar el antedicho Plan de ordenación de recursos humanos del Área Económica, y adoptar los siguientes acuerdos, competencia de este Pleno Municipal, contenidos en dicho Plan:

- Aprobar la creación de la Unidad de de Contratación y Subvenciones que se integrará dentro del Área Económica y desarrollará las funciones arriba definidas y con el organigrama funcional descrito en este plan.
- Crear la plaza de Técnico Medio/Administrativo de Contratos Menores y de Control del Procedimiento de Subvenciones, Escala de Administración

rreko eskalakoa, Administrari/Kudeaketa teknikarien azpi-eskalan, 14. mailarekin.

- Kontratazioen eta Diru-laguntzen Administrari lanpostua sortzea, Administrazio Orokorreko eskalakoa, Administrarien azpi-eskalan, txostenean deskribatutako betekizunak izango dituena eta 12. mailako soldata.
- Mª Jose Solozabal Zubiaurre andrearen lanpostua, administrari-laguntzailearena, 064 kodekoa, Kontratazioen eta Diru-laguntzen Unitatera berratxikitzea.
- Kontu-hartzailetzako Administrari lanpostua sortzea, 12. mailakoa, Administrazio Orokorreko eskalakoa, Administrarien azpi-eskalan, plan horretan adierazitako betekizunak izango dituena.
- Errenta eta Dirubilketa Teknikari lanpostua sortzea, 17. mailakoa, A1 titulazio-taldea, Zuzenbidean graduatua, Administrazio Bereziko Eskalan, goi-mailako teknikaria, plan horretan adierazitako betekizunak izango dituena.
- Enplegu plan honen xede diren lanpostuak hurrengo Balorazio Batzordean aztertuko dira, plan honetan esleitutako mailak egokiak diren ala ez aztertzeko.
- Enrique Errasti Garaikoetxea jauna izendatzea Kontratazioen eta Diru-laguntzen Unitateko Zuzendari.

General, Subescala Administrativo/Técnico de Gestión, nivel 14.

- Crear un puesto de Administrativo de Contratación y Subvenciones, Escala de Administración General, Subescala Administrativo, de acuerdo con las funciones descritas en el informe y con un nivel retributivo 12.
- Readscribir el puesto de trabajo de Mª José Solozabal Zubiaurre de Auxiliar Administrativo, código 064, a la Unidad de Contratación y Subvenciones.
- Crear un puesto de Administrativo de Intervención nivel 12, Escala de Administración General, Subescala Administrativo, de acuerdo con las funciones incluidas en el plan.
- Crear un puesto de Técnico de Rentas y Recaudación, nivel 17 grupo de titulación A1, graduado/a en derecho, Escala de Administración Especial, Técnico Superior, de acuerdo con las funciones fijadas en el Plan.
- Los puestos objeto de este plan de empleo se revisarán en la próxima comisión de valoración, cara de estudiar lo adecuado de los niveles adjudicados en este plan.
- Nombrar Director de la Unidad de Contratación y Subvenciones a D. Enrique Errasti Garaikoetxea.

• Udalbatzak, Enrique Errasti Garaikoetxea jauna izendatzen du -Kontratazioen eta Diru-laguntzen zuzendaria-, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari informazioa emateko arduradun legez, diru-laguntzetarako 38/2003 Legearen 20. artikuluak ezarritako eran. (15/2014 Legeak aldatutako artikulua)."

Aldalur jaunak dio bere Taldea Pertsonal batzordean abstenitu bazen ere, gaur aldeko botoa emango dutela langileen ordezkariek onartutako proposamen bat delako.
Gaineratzen du gauza bakar bat duela esateko, eta udal agintaldi honen hasieran, talde politikoei lokalak banatzeko orduan aurrera eta atzera ibili zirela, eta orain, Ogasun batzordeak leku gehiago behar duenez, eta agintaldi amaieran bada ere, lokalen inguruko bilera bat izango dutela.

Alkate jaunak dio ez dagoela zalantzarik: Ogasun sailak leku gehiago behar duela eta datorren udalbatzan ikusiko dela lokalak nola banatu behar diren.

Aurreko diktamena botazioan jarrita, etorri

• Designar por el Pleno de la corporación como responsable de suministrar la información a la Base de Datos Nacional de Subvenciones en los términos establecidos en el artículo 20 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones a D. Enrique Errasti Garaikoetxea como Director de la Unidad de Contratación y Subvenciones. (artículo Modificado por Ley 15/2014)."

Afirma el señor Aldalur que aunque su grupo se abstuvo en la Comisión de Personal, votarán a favor porque es una propuesta aceptada por los representantes de personal.
Añade que únicamente comentar que al principio de la corporación se anduvo para atrás y delante con el reparto de locales a los grupos políticos, y que ahora, por la necesidad del departamento de Hacienda de más espacio, y aunque sea al final del mandato, va a tener lugar una reunión sobre los locales.

El señor Alcalde afirma que es indudable que el Departamento necesita más espacio y que en la próxima corporación se verá como se reparten los locales.

Sometido a votación el precedente dic-

diren guztiek aho batez ontzat eman dute.

tamen, se aprueba por unanimidad de los/as Sres/as. asistentes.

4. ATALA. Premiak

Idazkari andreak esan du ez dela ezer jaso, beraz, ez dagoela ezer adierazteko-rik.

PUNTO 4º Urgencias.

Manifiesta la Sra. Secretaria no procede dar cuenta de ninguna por no haberse recibido.

5. ATALA. Galderak eta erreguak.

Ez da egin ez galderarik eta ezta inongo erregurik ere.

Eta gainerantzeko gairik ez dagoenez, eta arratsaldeko zortziak izanik, Alkate jaunak bilera altxatzen du, guzi honi, nik, Idazkari Orokor naizen honek, fede ematen dioda-larik.

PUNTO 5º Ruegos y Preguntas.

No se plantea ningún ruego, ni ninguna pregunta.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas, el Sr. Alcalde le-vanta la Sesión, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.